

HERRIKO FESTA ETA EKINTZETAN ERASO MATXISTEI ERANTZUTEKO PROTOKOLOA



AURKIBIDEA

HELBURUA.....	2
1. PREBENTZIOA	2
2. FESTA/EKITALDI EGUNETARAKO PROTOKOLOA.....	3
3. ERANTZUNA / SALAKETA	5
4. ATXIKIMENDUAK.....	6



HELBURUA

Herriko festa eta ekintzetan eraso matxistak ekiditea eta gertatzen direnean erantzuna ematea; horretarako lan talde motor bat eratzea eta herriko taberna, txozna gunea eta gainontzeko festa gunetako langile, antolatzaile eta laguntzaileei baliabideak eskaintzea.

1. PREBENTZIOA

a. Kolaborazioa eta sozializazioa

- i. Herriko eragileei, tabernariei, festa komisierei eta txozna antolatzaileei protokoloa banatu eta azalduko zaie.
 1. Horretarako: urtero, ekainean, protokoloa emailez bidaliko zaie eragile guztiei. Tabernetako jabe, txozna arduradun, gazte asanbladako kide eta festa komisiotako kideekin bilera bat egingo da guztia gogorarazteko.
 2. Herriko eragileei eta festa gunea izango diren zerbitzuei protokoloari atxikimendua emateko eskatu zaie. Eman dutenen zerrenda protokoloaren 4. puntuan agertuko da, baita kalean jarriko diren karteletan ere.
- ii. Logo/kartel bat sortu dugu, ikusgarria eta gogoratzeko erraza izango dena
 1. Festetako egitarauetan edota bestelako ekintzen karteletan agertuko da.
 2. Kartelak herrian zehar jarriko dira, baita sare sozialetan ere.
- iii. Erasorik ez dela onartuko adierazteko eta “puntu morea” non egongo den zehazteko pankarta ereduak prest izango ditugu festen aurretik zintzilikatzeko.

b. Talde motorra

- i. Erasoei erantzuteko prest dagoen eta protokoloa ondo ezagutuko duen arduradun taldea da. Horretarako, inguruan gonbidapena zabalduko da.
- ii. Talde hau emakumez* bakarrik osatuta egongo da.
- iii. Funtzioa eta ardurak:
 1. protokoloa ezagutzea, festa bakoitzeko beharrei egokitzea eta behar bada martxan jartzea

2. talde motorrari eustea eta funtzioa betetzen duela ziurtatzea.
- iv. Talde hau festa edo ekitaldi guztien aurretik bilduko da, ardurak banatzeko eta protokoloa berrikusteko/errepasatzeko.
- v. Festa egunetan taldeko kideak besoko moreak jantzita identifikatuko dira, laguntza behar duen orok (erasoa jasan edo ikusi duenak) haiengana jo dezan.
- vi. Tabernetako, txoznetako eta antzeko zerbitzuetako langileak jakinaren gainean egongo dira gau bakoitzean protokoloa martxan jartzeko arduraduna zein den eta norengana jo behar duten erasoren bat gertatzen den unean.

c. Gunearen prestaketa

- i. Festa gunean pankarta eta kartelak jarriko dira erasorik ez dela onartuko adierazteko.
- ii. Txozna gunean laguntza puntu bat jarriko da, pankarta bidez markatuta, erasotuek edo erasoa ikusi dutenek bertara jo dezaten.
- iii. Gune seguruak sortuko dira. [Funtzioa: erasoren bat gertatzen denean erasotua gunetik urruntzeko, lasaitzeko eta laguntza emateko guneak izango dira]
 1. San Martin: Udaletxe azpia
 2. Arrondo: Karpatik kanpo
 3. San Gregorio: "telefono kabina"
 4. Aia: Elizako aterpea
 5. Festak ez diren gainontzeko ekitaldietan talde motorrak aurrez zehaztuko du gune hori non egongo den

2. FESTA/EKITALDI EGUNETARAKO PROTOKOLOA

Zer egin eraso matxista bat gertatzen bada?

- a. Egiten ari zarena utzi eta erasotuari **kasu egin**.
- b. Laguntza behar duen **galdetu**
 - i. **Ezezkoa** bada, ez tematu.
 - ii. **Bai** badio, lagundu.
- c. Arretaz **entzun** (azalpenak, beharrak) eta **ez jarri zalantzan** kontatutakoa.
- d. Erasoa jasan duenari babesa adieraziko diogu, **ez utzi bakarrik**.

e. **Talde motorreko arduradunei jakinarazi.** Hemendik aurrerako lana eurena izango da eta hauek ondorengo pausuak jarraituko dituzte:

i. **Eraso mota identifikatu:** entzun eta erasoa zehaztu. Erasotua ados badago, guneko **argiak pizteko eta musika gelditzeko** eskatuko dugu.

ii. **Erasotuari erantzuna** (1. arduraduna)

1. Erasotua **gune segurura** eraman.

2. Kolpeak, bortxaketa saiakerak, bortxaketak... izan badira

a. Salaketa jarri nahi duen galdetu, behartu gabe.

b. Salaketa nahi izatekotan, 112 zenbakira deitu.

c. Babes emozionala eman, bere konfiantzako pertsona bat aurkitu laguntzeko.

d. Bortxaketa bada, ez garbitzeko/aldatzeko aholkatu.

3. Babosoak, lizunkeriak, ukituak... izan badira

a. Babes emozionala eman, bere konfiantzako pertsona bat aurkitu laguntzeko.

b. Lasaitu eta entzun.

4. Adin txikikoen kasuan

a. Erasoa jasan duela adin txikikoa bada: artatzea eta akonpainamendua kontu handiz egingo ditugu, eta honetara mugatuko da. Bere tutore legala aurrean egon gabe ez dugu ezer egingo, bere onarpena behar baita. Honekin batera, beste kasuetan ez bezala, ez dugu erasotua salaketa bat jartzera animatu edo bultzatuko.

iii. **Erasotzaileari erantzuna** (2. arduraduna)

1. Erasotzailea identifikatu

2. Erasotzailearekin hitz egin eta argi utziko diogu ez dela horrelako jarrerarik onartzen eta gunetik **kanporatuko** dugu (hau taldearen babesean egitea garrantzitsua da: seguruagoa izateko eta gaitzespena garbi geratzeko).

3. Bortxaketa, saiakera, kolpeak... tarteko badaude:

a. Erasotzailea kanporatu

b. Bortxaketa kasuan, eremutik kanporatu baina atxikituta mantendu eta ertzaintzari deitu.

c. Erasotzailea identifikatuko ez balitz:

i. Informazioa lortu eta aurkitu kanporatzeko.

- ii. Ez bada lortzen, jendeari jakinarazi, antolatzaileei eta megafonia/oholtza... erabili.
- 4. Adin txikikoen kasuan
 - a. Erasoa eragin duena adin txikikoa bada, kontu handiz hitz egingo dugu berarekin, ezin dugu esplizitatu eraso bat egin duenik, gure aurkako salaketa bat jar lezakeelako. Beraz, mezua hurrengo izango da: “jarrera desegokiak izan dituzula esan digute, beraz, gunea uztera gonbidatzen zaitugu”.
- iv. Beharrezko kontaktuak: hauek gunetako paretetan egongo dira.
 - 1. Larrialdiak: 112
 - 2. Ertzaintza: 943 08 88 00
 - 3. Talde motorrak festa horretarako izendatu duen arduradun(ar)en telefonoa(k).

3. ERANTZUNA / SALAKETA

- a. Erasoa gertatu den egunean, kasu hauetan etengo da festa, alegia, kasu hauetan itxiko dira zerbitzuak eta bukatuko da egitaraua:
 - i. Erasoa larri bat izan bada (bortxaketak, kolpeak...).
 - ii. Hiru eraso arin izan badira.
- b. Hurrengo eguna. Ataungo Berdintasun Batzordeak adostutako **salaketarako protokoloa** martxan jarriko da.
 - i. Bortxaketa edo hilketaren bat gertatuz gero, une horretatik aurrera antolatuta dagoen guztia bertan behera utziko da eta salaketak hasiko dira.
 - ii. Lizunkeria, ukitu, baboseo... eta antzekoen aurrean, hurrengo egunetan festak jarraitzen badu, ekitaldi/kontzentrazio/salaketa bat egingo da publikoki. Talde motorrak antolatuko du hau.
 - iii. Protokoloa banatu zaien tabernari, antolatzaile, eragileei balorazioa egingo zaie eta haiei ere euren balorazioa eskatuko zaie. Honen helburua gertatutako jakinarazteaz gain, protokoloa hobetzea eta leku arriskutsuak identifikatzea izango da.

4. ATXIKIMENDUAK

- Aiako festa komixioa
- Ataungo EH Bildu
- Ataungo Sortu
- Ataungo Udala
- Haitzarri Elkartea
- Jentilbaratza Kultur Elkartea
- Otsoak Dantza Taldea
- Presoen Lagunak
- San Gregorioko Festa Komixioa
- Sutegi taberna
- Torto Ataungo Gazte Asanblada
- Troskaeta taberna
- Urbietta erretegia